

ZIRTAK

Julen Galbina

IDAZLEA

Perfekzioa (II). Trenak

Bizitzan hainbat tren galdu ditut, eta, beste zenbaitetan, trenera hurbildu, leihoetatik barrura begiratu, nora zihoan asmatzen saiatu, barrualdea usaindu, eta estazio-buruak txistua jo duenean, trenari joaten utzi diot, eta urruntzen ikusi gero.

Galdetzen didatenean zergatik idazten dudan, ez dut beti egia esaten, nik ere ez baitakit oso ziur zein den egia, baina akordatzan naiz joan diren tren guztiekin.

Gaztetan, izango nituen hamar bat urte, gurasoek solfeoko eskola partikularretara apuntatu ninduten, nire ezintasuna ikusita. Lorategidun etxe batean, neska ilehori bat izaten nuen zain pianoaren aurrean, larunbat goizero. Egun batean, hirugarren eskola-egunean edo, lorategia zeharkatu eta, etxera sartu beharrean, leihotik begira geratu nintzen; han zegoen neska erlojuari so, pianoaren aurrean eserita. Buelta erdia eman eta ez nintzen gehiagor bueltatu. Geroztik, pentagramak kode deszifraezinak dira niretzat, euli hilen desfileak, eta gitarra bat esku artean hartzen badut, harietako kasurik egin ez eta egurra laztantzen hasten naiz, laztantzeko ezer hoberen faltan.

Gero pinturan hasi nintzen margolari ezagun baten tailerrean, eta ikasi nuen teknika, eta konbinatu nituen koloreak, eta kopia nituen ereduak, eta ez nintzen harago joan, kopiatzea baino harago sekula ez. Barru-barrutik irten behar zitzaizkidan koadroak erabili gabeko pintura-poteen barruan geratu ziren, siku eta gogortuta; trena hartu dezakezula pentsatu eta muturren aurrean ihes egiten dizuganean bezala, ezin sikuago eta gogortuago, hurrengo trena zein ordutan pasatuko den edo trenik pasatuko ote den ere jakin ezinda.




INIGO AZKONA

Bertsoak etorri ziren gero. Esan dezadan, laburbilduz, bertsoaren trenari nahita utzi niola ihes egiten, pozik gainera. Gernikan gertatu zen: Jon Lopategik proposatu zidan Bizkaiko Eskolarteko Txapelketan parte hartzeko, eta nik ezetz erantzun berehala. Bizitzan hartu ditudan erabaki guztietatik, huraxe izan zen heldutasunez hartu nuen lehenengoetakoa, eta ez naiz sekula damutu. Baina bertso munduak erakutsi zidan zer izan daitekeen sormena. Eta ikusi nuen, nire kasuan, sormena ez zela musika edo pintura, ez zela ezer abstraktua, ez antzeko bidezidor sentsorialik, eta sentimenduak adierazteko badaudela tren ugari, eta horietako bat hitza dela, hori bezain gauza sinplea, hain denona, hain oinarrizkoa, eta, zehazki horrexegatik, hain gauza konplexua.

Orain, urteak igarota, bertsolarien artean atezuan egoten naiz. Material bera darabilgun arren, ez naiz sekula sentitzen euren maila berean, baizik askoz ere beherago: euren komentario bakoitzaren ondoren, nahiko nuke gelatxo batera erretiratu eta ordu pare batez nire erantzuna pentsatu eta idatziz jarri.

Gero eta isilago egotea aukeratzen dut askotan, ahotik irteten zaizkidan hitzek nekez hobetzen baitute isiltasuna. Hitz egitea da, nire kasuan, zehaztasunetik urrunen egon daitekeen jarduna. Idaztea, berriz, pentsamenduaren ertzera heltzea da, perfekziotik hurbil geratzea, baina dianaren zentrotik kanpora ia beti. Batzuetan pentsatzen dut hitzaren trenari ere ihes egiten utzi beharko diodala egunen batean. Doala aurrerantz, eta gera nadin ni isiltasunaren esta-

zian zutik, barruan dudana azaltzeko balioko didan beste trenen baten zain, baldin eta beste trenik badago. ■



irudia:
Antton Olariaga

